



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO ABENDUAREN 11KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2015.12.11.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko akten onespena.
- 2.-Simon Iturria Alzuri jn.: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Hipolito Agesta Larrechea jn.: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Domingobaita etxeko obrari buruz.
- 5.-Pelle Ttiki-ko langilearen ordezkapenei buruz.
- 6.-Euskararen egunari buruzko adierazpen instituzionala.
- 7.-TTIPren aurkako ekimena.
- 8.-Cederna-Garalur elkartearen kuota.
- 9.- Balorazio txostena.
- 10.-2016ko aurrekontua: hasierako onespena.
- 11.-Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTEN ONESPENA.

2015eko azaroaren 6an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2015eko azaroaren 23an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-SIMON ITURRIA ALZURI JN.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Simon Iturria Alzuri jaunak, Emizarreta alderdian, 50 edo 60 akazien probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (entresaka, 6. poligonoko 207. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Simon Iturria Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-HIPOLITO AGESTA LARRECHEA JN.: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

Hipolito Agesta Larrechea jaunak, Arruneko Borda alderdian, pinu insignisen probetxamendua egiteko aurkeztutako eskaera ikusirik (entresaka, 4. poligonoko 75. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Hipolito Agesta Larrechea jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

4.-DOMINGOBAITA ETXEKO OBRARI BURUZ.

Arantzako Udalak, 2015eko irailaren 3an egindako bileran, erabaki zuen Domingobaita etxeke terraza azpian egindako obrei buruzko udal arkitektoen txostena onartzea eta jabeari txostena hori betearazteko eskatzea, terraza egiteko aurkeztutako proiektuan bezala utziz terraza azpia.

Ikusirik oraindik ez dela dena bota.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Domingobaita etxearen jabeari Karrika Nagusia kalera ematen duen aldeko paretara dena botarazteko eskatzea, bazterreko 2 paretak dauden bezala utziz.

2) Lana horiek burutzeko 2016ko urtarrilaren 11 arteko epea ematea.

3) Paretara bota ondoren terraza azpiaren argazkia aurkezteko eskatzea.

5.-PELLE TTIKI-KO LANGILEAREN ORDEZKAPENEI BURUZ.

Arantzako Udalak, 2015eko urriaren 9an egindako bileran erabaki zuen Pelle Ttiki-ko langilearen ordezkapenengatik Dindaiari ordaintzen den kopurua aztertzea segitu ala ez segitu erabakitzeko.

Alkateak adierazi du gaia aztertu duela eta ordaintzea komeni dela kopuru horrekin baja garaiko ordezkaren gasto guztia estaltzen delako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Pelle Ttiki-ko langileen ordezkapenengatik hilero dagokion kopurua ordaintzea



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

6.-EUSKARAREN EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

2015eko abenduaren 3an Euskararen Egunaren harira ,aho batez, ERBAKI DUTE:

1) Udalerrri euskaldunak dira euskararen arnaguneak, hizkuntzaren transmisioan eta balio erreferentzian duten garrantziagatik. Euskararen gune hegemonikoak dira, eta baita eredu ere hain euskaldunak ez diren eremuentzat.

2) Udalerrri euskaldunek izaera horri eutsi baldin badiote, eragile askoren ahaleginari esker eta hiztunen hautuari esker izan da. Aurten, bereziki, euskaldun berrien ekarpena aitortu eta eskertu nahi dugu, euskara ikastearekin, udalerrri euskaldunek gure hizkuntzari eusteko dagokien alea jarri dutelako.

3) Udalerrri euskaldunetako bilakaera soziolinguistikoak, hala ere, azken urteotan ezagutzak behera egin duela erakusten du, eta datu horiek kezka ikusten ditugu. Arnaguneak zaindu eta hedatu ezean, beheranzko joera areagotu egingo baita, euskararen normalizazio prozesua arriskuan jarritz.

4) Horregatik, euskaldun berriei aitortza hau egiteaz gain, euskaldun berriak sortzen jarraitzeko eta horretarako bitartekoak jartzeko eta erraztasunak emateko konpromisoa hartzen dugu. Baita udalerrriaren erabateko euskalduntzean dugun ardura eta egiten dugun ekarpena aztertzea ere, horren inguruko hausnarketa eginez, ditugun baliabideen eta eskumenen baitan.

5) Udalerrri euskalduna den heinean, Arantzako Udalak, honen bidez, euskaraz bizitzen segitzeko borondatea berretsi nahi du, harrotasunez, herri honen kulturari eta izaerari egin diezaiokeen ekarpen ederrenetakoa dela iritzita. Era berean, aitortu eta eskertu egin nahi du, egunero euskarari hauspoa ematen dioten herritar guztien hautua eta ekarpena eta, aurten, bereziki, euskaldun berriena.

7.-TTIP-REN AURKAKO EKIMENA.

Ikusirik Ipar Atlantiko Merkataritza eta Inbertsioen Hitzarmenaren aurka (TTIP ingelesez) hartutako mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako udalerrria, udalerrri intsumisioa eta TTIPen kontrakoa dela aitortzen dugu; halaber, oinarritzko zerbitzu publikoak elkartasunerako eta gizarte birbanaketarako defendatzen dugu.

2) Estatuko Gobernuaren Herri Administrazioen Ministerioari eskatzen diogu gizarterako onuragarriak diren zerbitzuek izaera publikoa mantentzea, helburu duten ekimen guztiei laguntzea. Hortaz gain, “Ley de racionalización y sostenibilidad de la administración local” delakoa, bertan behera uztea eta honen ordezkiz tokiko ekonomiaren garapena sustatzen duen beste lege bat sortu.

3) Ekonomia Ministerioari eskatzen diogu TTIP eta TISAren negoziazioen galarazpena eta CETA ez berrestea.

4) Ekonomia Ministerioari eskatzen diogu TTIPen negoziazioak bertan behera uztea, hurrengo helburuak lortzeko:

-Akordio honekin izandako gardentasun falta buka dadila eta informazio osoa jendaurrean jartzea.

-Ez akordio honetan, ez beste akordio batean, ISDS bezalako mekanismorik ez egotea. Bai zerbitzu publikoak bai jabego intelektuala hitzarmenetik kanpo geratzea.

Lobbyei, arau eta normalizazio prozesuetan (sozial, lan, osasun, inguruneko edo beste gaietan) bai zuzenki baita zeharka ere parte hartzea debekatzea. Organismo publikoek, demokratikoak diren giza taldeekin, elkarrizketa ez diskriminatzaile egin diezaiekete.

5)Udal bezala, komertzio akordioen gaia (TTIP, CETA eta TISA) egokiak ikusiko ditugun metodoen bidez, zabaltzeko ardura hartzen dugu. (Adibidez, TTIPren kontra Ekimenak kanpaina honetarako prestatu duen materiala: idazkiak, triptikoa, komikia, denda eta tabernetan kokatzeko txartela, pegatina, logoarekin egindako kamisetak, banderak, hitzaldi eta mahai inguruak antolatu, herriaren sarreran akordioen kontrako txartela jarri,...).

6)Nafarroako parlamentuari eskatzea, gai honi buruz erreferendum bat antolatzea, gure bizitza nola antolatu nahi dugula, gure eskubidea delako.

7)Mozio honetan onartutakoa, Estatuko gobernuari, Nafarroako Gobernuari, Diputatuen Kongresuko talde parlamentario guztiei baita Europako Parlamentuko kideei ere, bidaltzea, erregistratzeko eta horrela jakinaren gainean egoteko. Hortaz gain komunikabide guztiei eta bukatzeko TTIPren aurkako Ekimenari ere (ezttip.na@gmail.com).

8.-CEDERNA-GARALUR ELKARTEAREN KUOTA.

Ikusirik Cederna-Garalur elkarteak igorritako idatzia Baztan-Bidasoa Turismo Garapenari dagokion kuotari buruz.

Ikusirik 2015eko ekainaren 11an Baztan-Bidasoa eskualdean turismoa garatzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako kuota onartzea.

9.- BALORAZIO TXOSTENA.

Ikusirik Arantzako balorazio txostena egin behar dela (azkena 2004. urtean egin da).

Ikusirik TRACASA enpresak egindako aurrekontua (4.313,98 euro).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2016. urtean balorazio txostena egitea eta TRACASako aurrekontua onartzea.

10.-2016KO AURREKONTUA: HASIERAKO ONESPENA.

Gai hau aztertu da eta abenduaren 28ko bileran aztertzeko utzi da.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 105. ebazpenetik 114. ebazpena arte).

12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

13.-LEONCIO OSCOZ ECHEVERRIA JAUNAREN ESKAERA.

Ikusirik Leoncio Oscoz Echeverria jaunak aurkeztutako eskaera, bere izeneko 5. poligonoko 747 A lur zatia lurzoru urbanizagarri ez sektorizatutik ateratzeko eta katastroan lur ez urbanizagarria bezala uzteko.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Idazkariak azaldu du Arantzako Udalak sustatutako Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa eta segitutako prozedura. Bertan ez da agertzen aldaketaren berri behar bezala jakinarazi dela eskatzaileari.

Kontuan hartuz aldaketa hau egiteko Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa egitea beharrezkoa dela.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Hasiera batean onestea Arantzako Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa, 5.poligonoko 747. lur zatia A lurzoru urbanizagarri ez sektorizatutik ateratzeko eta lur ez urbanizagarria bezala uzteko.

2) Espedientea hilabete batez jendaurrean paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean argitaraturiko egunkarietan jarritako ediktuen bidez.

3) Akordio hau eskatzaileari eta unitatearen sustatzaileari jakinaraztea.

14.-UDALBILTZAKO HITZARMENA.

2015eko azaroaren 6an egindako bileran Arantzako Udalak erabaki zuen Udalbiltzak bidalitako hitzarmena berrestea eta 2.000,00 euroko ekarpena egitea, 2015eko aurrekontuan agertzen den partidaren kargura.

Kontuan izanik 2015eko urtea bukatzera dohala eta Udal hau ekainean hasi dela lanean, gaia lantzeko eta erabakitzeko denborarik gabe.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako hitzarmena berrestea.

2) Proiektua finantzatzeko 1.000,00 euroko ekarpena egitea, 2015eko aurrekontuan agertzen den partidaren kargura.

3) 2016. urterako proiektua finantzatzeko 2.000,00 euroko ekarpena egitea, 2016ko aurrekontuan kargura.

15.-NAFARROA OINEZ 2016: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Nafarroa Oinez-ek aurkeztutako idatzia diru laguntza eskatuz 2016ko eguna antolatuzko.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2016. aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



